

# BAGABILTZA



LHK-CRLko euskara-planaren buletina. 3. zk. 2021eko ekaina.

## Lan-bileretan euskaraz ere bai

Euskaraz lan egitea oso zaila da. Arrazoiak asko dira: lankide guztiek euskaraz ez jakitea, euskara teknikoa ez menderatzea, itzulpenetan denbora galtzea, e.a. Eragozpenak bistakoak dira, eta ezin dira gutxietsi; hainbat egoeratan zaila da euskaraz aritzea lanean. Baina, hala ere, sarritan ez al ditugu arazoak ikusten ez dauden lekuan? Adibidez, galdetu al diozu inoiz

zure buruari zergatik egiten ditugun batzarrak gaztelaniaz, batzarkide guztiek euskara ulertzen badute? Guztiek euskaraz ulertzen dutenean, zergatik ez egin bakoitzak nahi duen hizkuntzan?

Hemen dituzue laneko batzarrak euskaraz egiteko jarraibide batzuk. Prozedura hori jarraituz gero, seguru euskarak leku gehiago izango duela bai lankideekin, bai beste eragile batzuekin bilerak egiten ditugunean.



Hasi dezagun bilera

**JARRAIBIDE LAGUNGARRIAK**

- Ez itsutu hitz teknikoekin, behar denean erdarara jo.
- Erdarara jotzen denean, ondoren euskarara itzuli.
- Gai-zerrenda, aurkezpenak eta abar, euskaraz egotea oso lagungarria da bilerak euskaraz egiteko.

Yolanda Zarandona



Lan Harremanen Kontseiluko idazkari nagusi berria naizen aldetik, hainbat kontutan ardura izatea eta erabakiak hartzea da gokit, eta kargu berrian, Euskara Plana oso aintzat hartuko dudala argi utzi nahi dut.


Esaterako, Gobernu Kontseiluak onartu eta argitaratu berri dituen HOEiak, Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak, guretzat erreferente direla azpimarratu nahi dut zutabe honetan. Horiek betetzea da gure helburua, eta horretarako langile guztion konpromisoa ezinbestekoa da.

Lan handia egin dugu orain arte, eta lan hori emaitzak ematen ari da, Kontseiluaren egunerokoan euskararen erabilera areagotzen ari dela agerikoa baita, baina oraindik bide luzea dugu aurretik, eta nik konpromisoa agertzen dut bide horretan ematen diren pausoak babesteko.



### EUSKARAREN ERABILERA GORA

Marta Momoitio LHK-ko harrerako lankide berriak lanean hasi bezain laster heldu die Euskara Planaren zereginei. Maiatzaren amaieran euskararen erabilaren mintzagrama betetzeko eskatu zizuen lankide guztioi. Grafiko honetan dituzue orain arteko neurketen emaitzak.



1. neurketa: 2020-3-10; 2. neurketa: 2020-6-11; 3. neurketa: 2021-5-21.